



Gorka Knörr, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo eta Xabier Lete, Gasteizen eskainitako ikuskizun batean. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

## Etsaiaren hilotza



**T**xikitan ikasi nuen Franco gaiztoa zela. Badakit hori lehen eskolan gertatu zela eta sei urte bete aurretik utzi nuen eskola hura. Aitak esplikatu zigun hori, Franco gaiztoa zela, urtetan sartu zuela bera kartzelan. Ondoren esan zigun ez geniola inori halakorik aipatu behar, etxetik kanpo.

Gure aita zenak Franco hilda ikusi nahi zuela esaten zuen, baina hura baino sei urte lehenago hil zen. Asmo bera zuen Gabriel Arestik eta Franco baino hilabete gutxitako aurrerapenarekin hil zen. Horrela ikasi nuen ustez arabiar jatorria duen esaera ez dela beti betetzen: eseri lasai zure etxeko atarian eta handik ikusiko duzu zure etsaiaren hilotza.

Egin zuen aurrera bizitzak eta hilezko zirudien diktadorea hil zen, azkenean. Une hartan 28 urte nituen. Ordurako argitaratu nuen bizpahiru lan eta beste hainbeste ofiziotan jardun. Liburuak euskaraz argitaratzen zituen LUR argitaletxearekin topo egin nuenean, ama larritu egin zen. Esan zidan aitaren antza nuela nik, hura bezala saltsatan sartzeko joera eta ez nuela ahaztu behar zenbat kalte ekarri zion horrek aita zenari.

Joan den mendeko hirurogeien bukaeran, euskaraz idatzi eta argitaratzea saltsatan sartzea zen gure ama abertzalearentzat eta hala zen. Arrisku horiek, ez zetozen soilik diktaduraren jarraitzaile eta morroien aldetik. Egia esan, hain gutxi ginen jardun horretan, ze zentsurak berak ez baitzigun arreta handirik eskaintzen.

Benetako arriskua barrutik zetorren, urte horietan gatazka izena merezi zuen liskarra baitzen nagusi euskararen esparru gutxituan. Bitan banatzen zen mundutxo hori, batetik euskararen batasunaren alde egiten genuenok, bestetik batasunaren kontrakoak, euskalki hutsekin eroso zeudenak.

Hil zen diktadorea, egin zuten urteek aurrera eta liskar mingarri hori handik urte batzuetara bukatu zen, Garai-kotxea lehendakari zela eta Pedro Miguel Etxenike hezkuntza sailburu, Jaurilaritzak euskara batuaren alde egin zuenean.

Ordurako Franco oroitzapen mingarrien karpeta sailkatua zegoen.

**1**975eko ekainaren 4an hil zen Gabriel Aresti. Bere bizitza osoan amestu zuen Francoren ondoren hiltzea eta diktadorearen heriotza ikustea, baina ez zen ametsa bete.

### Edizio mundua

1975eko urte hartan argitaletxe berriak ari ziren agertzen. Jesuiten etxean Mensajero-Gero agertu zen 1972an, eta Elkarrek ere indar berriak hartu zituen 1974an. Arestik berak adiskideekin sortu zuen Lur etxeak eskuz aldatu eta berriro hasi zen lanean, Kriseilu izenarekin 1977an. Euskal literaturak plaza berriak zituen bere izaera agertzeko. Haize berria zebilen munduan.

### Xabier Lete gogoan, poesia bideak

1974an Xabier Letek bere 'Bigarren poema liburua' eman zuen ezagutzera. Existenzialismo garratzak eta poesia sozialak betetzen zuen irakurlearen begia, esaldi erlijiosoei adierazpide berriak emanez: «Sinesten dut/egun batean hilen naizela/hutsean eroria/ezerezean amildua/hauts bihurtuko naizela». Esango nuke esaldi horien oihartzunean irakurri nituela garaiko testuak: Joseba Zulaikaren 'Adanen poema amaigabea', Mikel Arregiren 'Hego haizearen konpasean', Joan Mari Irigoienen 'Hutsetik esperantzara', izenburutik bertatik existenzialismoan kokaturiko poema liburua, eta Luis Mari Mujikaren 'Hitzak ebakitzean'.

Lete dut berriro gogoan, olerkari klasikoak irakurtzen nituela garai hartan. Gerok 1974an agertu zuen Lauaxetaren 'Olerkiak', poema liburu biak gain, beste poema batzuk ere ekartzen zituen alea, eta Valverde moldiztegiak Lizardiren antologia bat argitaratu zuen irudi ederrez hornitua.

## 50 urte pasa dira mendekak 25 betetzen dituenengan

**Jauzia.** Zaharra joaten ari zen, berria oraindik etorri gabe. Bi munduen arteko nora ezaren larridura azaldu zuen urte horietako literaturak

JON KORTAZAR



### Haurgintza minetan

1973an, idazle gisa garai hartan gaur baino ospe handiagoz zen Mikel Zarakte nobela esanguratsua argitaratu zuen. Lezamako idazlea Koldo Mitxelena euskal literaturak etorkizunerako zuen habe nagusi moduan aipatu zuen, Atxagarekin batera.

'Haurgintza minetan' nobelak modernitatearen aurrean euskal gizarteak bizi zituen kontraesanen deskribapena egin nahi zuen. Tradizioa eta gaurkotasuna, mundu bat desagertzera zihoan artean bestea sortu gabe zegoen oraindik, baina zantzuak ageri ziren jada ortzimugan. Frankismoaren zahartzaroa nabari zen, baina aro

berria zer zen eta nola zetorren ez zen asmatzen. Garai biren arteko mina zen nobelaren gaia.

### Nobelaren garaia

Kezka horretan, kontakizun tradizionalaren eta berrikuntzaren artean zegoen 1975eko kontagintza ere. Urte horretan gerra aurrean idazten hasi zen Manuel Ziarsoloren, Abeletxeren, 'Gazigozoak' ipuin bilduma argitaratu zen. Eta beste aldean, Patri Urkizuren 'Sekulorum sekulotan' nobela berrizalea eta abangoardia kutsua zeriona. Garaiko iruzkinak hauxe zioen nobela horretaz: «Urkizuk, bakar-hizketa bukagaitz batez nobelagintzaren

bide berri bat urratu nahi du, bere izate molde bereziki dagokiokeen adierazpenik propioenaz baliatuz, eta irakurlearengan sortaraz dezakeen (sortaraziko duen) amilaz alde aurretik jabetuz».

Antzeko zer bait gertatzen zen Auspoan, Antonio Zavalaren lan eskerga handiari esker, agerturiko bertsolarien liburuekin. Haien artean daude Uztapideren autobiografia, 'Lengo egunak gogoan', edo Manuel Lasarteren 'Gordean neuzkanak'. Eta Mikel Zarateren proposamen berriarekin. Liburu bereko moldapen bi eman zituen argitara: Ipuin antzeko (Gero editorialean) eta izenburua osatzen zuen 'Ipuin antzeko alegi mingotsak' (Leopoldo Zugaza editorearen etxean). Aldaketa ez zetorren soilik izenburuan. Garaiko hizkeraren kezka ageri dira bikoiztasun horretan: bizkaieraz jarraitu edo baturantz joan. Ipuin antzeko alegi mingotsak liburuak ibilbide luzea egin zue, zeren urte biren buruan Bilboko Udala Kutzak zabalkunde handia eman zion liburuaren oparitutuz.

Irakurlegoa garaiko kezka izan zen. Eta Xabier Gereñok bazuen best sellerak egiteko gogoia. Genero beltzeko 'Hiltzaile baten bila' eman zuen argitara urte horretan. Beste maila batekoa da 'Andereño' lana, garaiko gertaera bati buruzkoa. Ideologia zela eta, ikastola batetik bidalitako andereño baten kronika da liburua.

### Antzerkia

Jarrai dezagun antzertiarekin. Bi argitaratu zituen Lurdes Iriondo kantariak Gero etxean, 'Asto baten malura' eta 'Buruntza azpian', baina urte horretan ere Bernardo Atxagak 'Antzerki minimum bat' eman zigun Ustelako orrietan.

Zaharra joaten ari zen, berria oraindik etorri gabe. Bi munduen arteko nora ezaren larridura azaldu zuen urte horretako literaturak.